

ZABALETA AUZOLAN ELKARTEA

ZABALETA TAUPADAKA

Aldaketek eta gora beherek bihotza mugiarazten digute, poliki, korrika edo saltoka.

ZABALETA FRONTOIAREN INAUGURAZIOA



aina auzoek ba al dute bihotzik?

Eta hala bada, zein da gorputza? Eraikinak, espaloiak, errepideak eta parkeak?

Orduan, Zabaletaren gorputza handituz doa? Gaztarora bueltatzen ari ote da?

Azken urtean, eraikinak egin eta egin ari dira hondea makinak. Arestiko auzo orlegia, landa eremua zena, gris bihurtzen du gizakiaren aztarnak onddoen antzera.

Baina auzoetan bada bizitza ere, ezta? Horiek gorputzuko lukete auzoa?

Gero eta gehiago gara gurean behintzat, bizilagun asko ekarri dizkigu hirigintza hazkunderak. Soilik azken urtean, 50 familia berri etorri dira eta, hurrengoan, gehiago izango gara.

Hala ere, bertan bizi edo lotara gatoz?

Lats arteko aldapan edo muinoan daude gure etxeak, ez gaude udalerrriaren erdigunean, bihotzean, eta Goiegiko bidea ibilgailuak gora eta behera dabilzan zain potoloa bihurtu da.

Agian, kolektiboan, komunitatean, pentsatu liteke?

Nola komunikatu, ordea, lo edo bakoitza bere kotxean sartuta?

Eremu publikoan beharko du, gure kobatik kanpora irten beharra dago horretarako. Baina, hasiera, ez da erraza. Harremanak ez dira errazak. Ala gu, gero eta korapilatsuagoak gara?

Anitzagoak bai, nahasiago gaude. Baina nahasketak elkar aberastea dakar, hori argi dago. Hartara nola elkar ulertu? Hizkuntza da gakoa. Bihotza diote. Hala irakatsi ziguten aspaldi.



Baina zein hizkuntza?

Hitzezkoa?


Hizkuntza erabilera ohi-turak aldatzen ari dira. Arestian, euskarak zuen presentziak behera egin du. Beraz, hazkundeak ez du soilik ingurumenean eta paisaian eragin. Hala ere, bizilagun berri gehienak gazteak gara, eta datuek diotenez, euskara badakigu erabili ez arren.

Baina hitzeko komunikazioa ere hotza izan daiteke. Orduan, balio al du?

Teoria guztiek diote berotzeko gerturaztea bezalakorik ez dagoela, gero eta gertuago, gero eta goxoago. Ez dago zalantzarik, elkarren beharra dugu, are gehiago leku berri batetara bizitzera bagatoz. Ongietorriak izateak garrantzia handia du, eta erabili beharreko hizkuntzak ilusio sortu eta babesa eskaini behar du. Horrela, etorkizunean elkarrekin auzo proiektua erai-kiko dugu guztion artean, eta noski, bidean elkar ezagutu eta ulertuko dugu. Bidelagun, auzolagun izango gara.

Ibilbideak, ordea, hausnarketa eskatzen du, eta hala egin nahi dugu lerro hauekin. Aldaketa guzti horien aurrean, sentimendu asko nahastu eta azaleratzen ditugu, galdera asko sortzen zaizkigu. Horien erantzunak, berriz, ez dira errazak, asko zailak, ziur. Baina bat behintzat argi dugu: auzoko festak, frontoiaren inaugurazioa, inauteriak, irteerak, Olentzero, Santa Ageda, San Juan sua eta antolatu ohi ditugun ekime-nak, taupadak dira. Urte osoan zehar, auzoa arnas berritzen duten bihotzaren taupadak. Eta, beraz, datorren urtean ere, taupadaka beteko ditugu orrialde hauek.

lazko urte amaieran, azkenik horrenbeste urteetan eskatutako frontoia lortu genuen, eta, hartara eginiko festan-parodian, 1920 hamarkada irudikatuz, auzoak garaiko glamourra erakutsi zuen. Kotxe historikoak, zalgurdia, apaiza, gauzaina, aguazila... eta ia 300 auzotar garaiko jantziekin



ALBAOLA IRTEERA

SANTA AGEDA
BEZPERAKO KOPLAKIHAUTERIAK 2019.
ZABALETKO BIKINGOAK.
AURTEN 100 LAGUN BAINO
GAHJAGO JUNTA TU GARA

OLENTZERO EGUNA